



**XABIER AMURIZA – “Bertso berriak eta koplak zaharrak”
Ordiziako D’Elikatuz zentroan –
Irailak 11, larunbata, 22:15 h.
Programa-Euskal Jaiak**

Larunbata honetan, gaueko 22:15etan, Ordiziako D’Elikatuz zentroan, Xabier Amuriza bertsolariak emanaldi berria aurkeztuko du: “Bertso berriak eta koplak zaharrak”. Ekitaldi batean eman litekeenak nahitaez selekzio labur samarra izan behar duenez, herritik herrirako edukiak aldakorrak izango dira, neurri batean, honako arloetan:

I) Tokian tokiko berri. 1970.eneko hamarkada azkenerantz, Amurizak, zenbait musikariren laguntzaz, Euskal Herriko, batez ere Bizkaiko (Aulesti, Lekeitio, Durango, Elorrio, Bilbo, Busturia, Zeanuri, Busturia, Larrabetzu, Fika...) eta Gipuzkoako (Zumaia, Hernanialdea, Goierri, Urnieta, Donostia, Tolosa, Arrasate...) hainbat herritan eman zuen HERRIKO PLAZAN izeneko ekitaldia, non herri eta eskualdeetako orduko aktualitatea kantatzen zen. Historia haiek, handik 30 urtera, nolako inpresioa egiten duten entzun ahal izango da, dagokien tokietan.

II) Gai politikoak: frankismoa, epaiketak, kartzelako bizitza, apaizen desbandada, presoak, Tejero, Lemoiz, hilak...

III) Gai sozialak: gasolina-petrolioak, Reala Nagusi (Realak bi liga irabazi zituenekoa), Aliron (Athleticek beste bizi irabazi zituenekoa), Hizkuntzen nahastea (Tantum ergo), Sanferminak...

IV) Gai orokorrak: Euskararen erromantzea (Etxekoandre ederra nintzen), emakumearen erabilpena (Agur sagar beltzeran), kantuen indarra (Hilkutxan ere kantari), bizitza bizi (Mendian gora haritza), etsipenetik itzulera (Anbotorekin trukean), lige baten historia (Asteburu aldera), bertsolaritzaren inguruko gaiak (Txoriak eta txoriburuak)...

V) Zenbait sorta entzuleak hain gogoko izan ohi duen koplarietako generoan eta doinueta izango dira, koplak zaharrak eta berriak konbinatuz.

Publiko zabalari zuzendua, larunbata honetan bertsoekin hitzordua Ordiziako D’Elikatuz zentroan.

GAZTEENTZAKO INFORMAZIO BULEGOA
OFICINA DE INFORMACIÓN JUVENIL
Barrena Jauregia,z/g 20240 Ordizia
Tef: 943 80 56 34 ,[e-mail:gazteria@ordizia.org](mailto:gazteria@ordizia.org)